



URTEKO BALANTZEA

Etxerat

euskal errepresaliatu politikoen senide eta lagunak
familiares y allegados de represaliados políticos vascos
parents et amis de prisonniers et d'exilés politiques basques

SARRERA

Anitza bezain jendetsua izan zen, urtarrilaren 11-n Bilboko kaleak hartu zituen manifestaldia. Euskal gizartearen apustua, esperantzaren ikurra: konponbidea, bakea eta giza eskubideen aldeko oihu irmoa izan ziren Bilbon. Hilabete beranduago oster, Arkaitz Bellon euskal preso politikoaren heriotzak, espetxe politikaren benetako zentzua azaleratu zuen. Heriotzak, politika horrekin betirako amaitzeko premia azaleratu zuen, euskal gizarteak Bilboko kaleetan islatutakoa, hain zuzen.

Otsailaren 5ean, askatasuna berreskuratzeko hiru hilabete besterik geratzen ez zirenean, hilik aurkitu zuten euskal preso politikoa. Arkaitz Bellonen istorioa, espetxe politika gupidagabe baten adierazlea da. Bakearen gainetik mendekua, krudelkeria eta sufrimendua iraunarazi nahi dutenek soilik defendatu ahal izango dutena. Ankerkeria eta sufrimendua konponbidearen gainetik, azken batez.

Arkaitz Bellonek 13 urteko kondena, oso-osorik, maiatzean bete behar zuen. Hogeita hamabost hilabete lehenagotik ordea, aske behar luke, Espaniako Kode Penalak aurreikusi bezala. Baina baldintzapeneko askatasuna eskuratzeko aukera debekatua dago euskal preso politiko guztientzat. Onartzen ez zaien neurri bat delako.

Arkaitz espetxean sartu zutenetik, Valdemoro, Ocaña, Herrera de la Mancha, Algeciras, Sevilla eta Puerto de Santa Maria espetxeetatik igaro zen. Zenbat eta denbora gehiago espetxean, geroz eta urrunago. Senideei geroz eta traba gehiago, denbora gehiago pasa ahala, nekea eta desgastea geroz eta handiagoak direnean. 2007an, bere senideek istripu bat izan zuten Herrera de la Manchako espetxera zihoazenean. 2010ean berriz, preso eta lagunaren autobusa Cadizen erasotua izan zen. Harriak jaurti zizkieten es-



kuindarrekin presoekin senide eta lagunen senideei Arkaitzen ama autobus horretan zihoala. Aurreko kasuetan bezala, baita ondoren jazotakoetan bezalaxe, inpunitate osoz jardun zuten erasotzaileek.

Arkaitz Bellonek tratatu txarrak eta jipoiak pairatu zituen Algeciras, Puerto I eta Sevilla espetxeetan. Bere heriotza “heriotza natural” gisa definitua izan zen eta, agian, naturala da, bai. Ezer naturalagorik baino hiltzea pertsona fisikoki eta psikologikoki suntsitzea helburu duen espetxe politika baten menpe zaudenean. Zer naturalagorik politika horren arduradunek, zigorrak luzatzeko “eskubidea” gordetzen dutenean, epaileek epaitegietan jarritako kondenak luzatzeko aukera gordetzen dutenean?

Hauxe da, makillajerik gabeko, tranparik gabeko dispartzioaren erretratua. Erabiltzen dituen bitartekoen, helburuen eta ondorioen erretratua. Eta giza eskubideen etengabeko urraketa den espetxe politika honetan, larriki gaixotutakoak bederatzi euskal preso politikoei euren gaixotasun larri eta sendaezinei aurre egin behar diete; euren askatasuna legeak aurreikusi arren.

Informe honek espetxean ditugun senideek sufritu dituzten giza eskubideen urraketa eta senideok sufritu ditugunak jasotzen ditu. Argi dugu gure eskari zein salaketei entzungor egiten dietela espetxe politikaren arduradunek. Argi dugu egungo espetxe politikaren izpiritua sufrimendua sortaraztea dela eta, horregatik mantentzen dela: helburu zital hori betetzen duelako; sufrimendua sortzeko gai delako oraindik ere. Baina ere berean, argi dugu, euskal gizartearen gehiengoak ez duela onartzen espetxe politika honen justifikaziorik. Konponbide, bizikidetzak eta bakearen bidean, giza eskubide guztien errespetua lehen eta halabeharrezko urratsa delako.

Etxeratek bide honetan aurrera egiteko apustu irmoa egin du. Horregatik, aurrean antolatutako foro eta batzarretan hartu dugu parte. Jardunaldi horietan munduko beste konfliktu politikoak aztertuta, sufritzen ari garen bezalako beste egoera batzuetara gerturatu gara. Nazioarteko adituen, bitartekarien eta nazioarteko esperientziekin inoiz errazak ez diren pausu ausartak ematen jarraitu dezagun konponbidera eramango gaituen ibilbidea osatzeko.



1. DISPERTSIOAREN MAPA

Mapa honek agerian uzten du dispartzio politika ez dela soilik presoak beraien artean banatzeko politika, beraien etxe, familiengandik, inguru social eta kulturalarengandik urruntzera bideratutako espetxe politika bat baizik. Senide eta lagunongan baita espetxeratuak ditugunongan ahalik eta sufri-mendu gehien sortzera begirako neurri berezia delarik.

465 preso 76 espetxetan dispartsiatuak daude egun:

- 3 euskal preso politiko 3 Euskal Herriko espetxetan.
- 356 euskal preso politiko Estatu espainoleko 44 espetxetan.
- 98 euskal preso politiko estatu frantseseko 28 espetxetan.
- 1 euskal preso politiko Ingalaterran.
- 1 euskal preso politiko Portugalen.
- 1 euskal preso politiko Alemanian.
- 6 euskal preso politiko gaixotasun larri edota sendaezinengatik etxean preso (espetxeratze arinduan).
- 64 euskal preso politiko Euskal Herriatik 1100-1000km arteko espe-txetan daude.





- 131 euskal preso politiko Euskal Herritik 990-800 km arteko espetxetan daude.
- 169 euskal preso politiko Euskal Herritik 790-500km artean daude.
- 29 euskal preso politiko Euskal Herritik 490-400km artean daude.
- 65 euskal preso politiko Euskal Herritik 400km baino gutxiagorako espetxetan daude.





Mannheim
(Alemania)
1 1.430 Km

Fleury	Fresnes	Poissy	Villepinte
12 930 Km	6 930 Km	3 950 Km	2 950 Km
Nanterre	Bois d'Arcy	Osny	Reau Sud Francilien
4 930 Km	4 930 Km	5 970 Km	4 930 Km



Eguneratua / Actualizado / Actualisé: 2014-10-31



2. DISPERTSIOAREN ONDORIOAK

2.1 Osasun Eskubidearen Urraketa

2014 urteko lehen sei hilabeteak bereziki gogorrak izan dira. Otsailaren 5ean kasu, Arkaitz Bellon, espetxean kolpe eta erasoez markatutako euskal presoaren heriotza gertatu zen, aste gutxi falta zitzaizkionean espetxetik atera eta askatasuna berreskuratzeko.

Arkaitzen heriotza bezalakoak izan ziren urte berean beste bi heriotza, denetara 3 hildako espetxeetan.

Bere familiak, Euskal Herriari emandako babesa eskertzeko gutuna ezagutarazi egin zuen eta, gutun horren atal batzuk berreskuratu nahi izan ditugu, senide eta lagunek pairatutakoa beste ezer baino hobeto islatzen baitu. Hauek dira gutun horretako lerro batzuk:

‘Mediku txostenek, momentuz, diotenaren arabera, bapateko heriotza naturala, izan da Arkaitzena. Azken unean, ia konturatu gabe, sufrimendu keinurik gabe hil dela onar genezake agian, baina ez bapateko heriotza izan denik, 13 urte luze hauetan erahil baitute krudelkeria neurtu eta sistematizatu baten bitartez. Arkaitzen espetxealdia ezagututa, aldiz, nola onartu bere heriotza naturala dela?’

Duela 13 urte ta erdi Arkaitz atxilotu eta torturatu egin zuten. Handik 3 urtera, epaiketan, fiskalak berak frogatu zutenik ez zela aitortu arren, kondenatu egin zuten Andoni eta Txominekin batera. Leporatzen zizkioten ekintzekin inongo proportziorik ez zuten kondena luze eta neurrigabea eman zioten. Askatasuna, Arkaitzek bezainbeste inork gutxik maite badezake ere, gu baino hobeto eta azkarrago egokitu zen egoera berrira. Orduan, hasi ginen ulertzen urruntzearen eta dispartzioaren benetako esanahia: Valdemoro, Ocaña, Herrera de la Mancha, Algeciras, Puerto... Gero eta



urrutirago beti. Urte bakoitzean 100.000 km inguru egin ditugu astean 40 minutuz ikusi ahal izateko. Espetxe aldaketa bakoitzean, hainbat egunetan non daukaten ere ez jakiteak sortzen duen ezinegona ezagutu eta jasan dugu.

Ezin dugu irudikatu, hala ere, berak nola bizi izan duen, gurasoak bera bisitatzera joan eta errepidean istripu larri bat izan dutela jakitea. Ezin dugu irudikatu, sentitu duen amorrua, mina eta ezina gartzeleroek, jipoitu ondoren, eskuburdinak jarririk, biluzik, egun oso bat oheari lotuta utzi dutenean. Arkaitzekin ikasi dugu, espetxe barruan ere, bere gartzelaldiaren xati handi bat isolatuta egin baitu, inongo kideren babesik eta laguntasunik gabe. Ezagutu dugu zer den, bera bisitatzeko 1000 kilometro egin eta edozein aitzakiarekin bisita ukatu eta elkar ikusi gabe itzultzea. Eta gogorra, jasangaitza egiten zaigu hori guztia eta askoz gehiago berak bakar bakarrik jasan behar izan duela jakitea. Izan ere, jipoia edo beste edozer izanda ere, bisitan, gure aurrean, beti indartsu agertzen zen, beti aterarazten zigun irribarrea. Horrelakoxea zen Arkaitz, gogorra baina xumea. Ez gintuen larritu nahi, ez zuen gure bihotza mindu nahi.

Guk badakigu horrek denak hil duela Arkaitz; Arkaitz ez da joan, kendu egin digute. Gartzela politika hiltzaile baten ondorio zuzena izan da gertatu dena, ez “edozeini gerta dakioken zerbait”. Kasualitatea baino kausalitatea izan da. Zer gertatuko zaio ba lore bati, lurra, ura eta argia kentzen badizkiote?”

Arkaitz Bellon Blancoren heriotzak euskal preso politikoei momenturo pairatzen duten tentsioa mahaigaineratzen du. Espetxeak tentsioa du adierazle nagusia. Tentsioa hau du hizpide Jaiki Hadi elkarteak Osasunaren inguruan prestatutako “Kartzela eta Osasuna” txostenak. Pasarte hauek txostenean txertatzea erabaki dugu, lagunduko baituelako Arkaitzen heriotza testuinguruan kokatzen, bere heriotza saihesgarri eta batere naturala salatzeko. Beraren egoera eta beste 9 euskal preso gaixo larri edota sendaezinen egoera ulertzeko, oraindik ere estatuek preso mantentzen dituzten presoak direlako.

“Kolektibo honi aplikatzen zaion espetxe politikak baditu beste osagarri batzuk, osasun alorrean zuzen eragiten dutenak, patogenikoa bilakatu arteraino. Horrela, pertsona hauek espetxe politika berezituaren, ondorioz espetxean bizi ohi duten etengabeko tentsioak ez du batere laguntzen maila honetan.



Neurri bereziak ezartzen zaizkie preso hauei, unean uneko giro politiko edo sozialari lotuak, eta horrek sufrimendu maila areagotzen du haiengan. Preso hauei ezartzen zaieen bizitza erregimenak espazioa eta denboraren arloko aldaketa ugari sortzen du askotan. Maiatzasunezko espetxe edo ziega aldaketak, bihi baldintzen etengabeko aldaketak, gaueko kontaketak, etengabeko miaketak, zeremonia iraingarri eta umiliagarriak (miaketetan bai presoak bai senidea biluztu beharra, kontaketetan egon beharra, ...), leihoetako metalezko xafla zulatuak, etab., honek guztiak, jakina, eragin zuzena du pertsona hauengan. Eta, zer esanik ez, gaixo egonik neurri berezi horiek (kontrol itogarria, lekualdaketa etengabeak, bakartze sistematikoa, haien aurkako mehatxu eta oldartze sistematizatua, ...) jasan behar dituztenean.

Bakartze edo isolamenduaren aplikazio zorrotza da kolektibo honen beste bereizgarri bat. Isolamendua edo bakartzea egoera oso zehatzetara zuzendutako neurria bada ere, espetxe arautegian (zigor puntual gisako neurritzat hartzen dena), kolektibo honen kasuan ohiko edota behin-betiko neurri gisa ezartzen da. Izan ere, preso hauek ez dute zertan espetxe arautegia puskatu beharrik zigor mota hau jasotzeko. Are gehiago, ohikoa bilakatu da pertsona hauek bata besteengandik bakartzea espetxetan zein modulutan.

“Goiko aginduak” edota “segurtasun arrazoiak” izaten dira aipatzen diren aitzakiak. Jakina, ezaguna da bakartze luzeak nolako eragina duen pertsonarengan eta are gehiago kasu hauetan, bakartzea aste, hilabete edo urteetan luzatzen denean. Osasungintzari dagokionez, berriaz, maiz suertatzen da presoak nahita-nahiez isolamendura eramatea (zigorren bat betetzeko, erregimen arazoengatik...)

Baina zenbait presorentzat bereziki kaltegarria izaten da egoera honetan egotea, buru osasuna dela, klaustrofobia dela... eta kasu hauetan ere maiz suertatzen dira arazoak: “goiko aginduak” eta “segurtasun arrazoiak” erabiltzen dira aitzakia gisa pertsona hauek bakartzeko. Espetxeko sendagile eta psikologoek bakartze kasu hauek eragozteko ahalmena dutela aipatu beharra dago, baina gehienetan espetxeko agintaritzari men egiten diote.

Isolamendua pertsonaren nortasuna ezabatzeko eta menperatzeko mekanismo gisa erabiltzen du espetxe instituzioak. Bakardade eta bizitza antsietate sentimendu sakona bultzatzen du, erreferentzia-puntuak desagertzen baitira; ezin ditu gertakizunak aurreikusi (gatazkak, murritzketak, aginduak, ...) edo saihestu (monotonia, ordutegia edo espazioak)”.

JAIKI HADI (2013-04)



Larriki gaixo dauden 9 euskal preso politikoen egoera oso larria da eta, egunez egun, okerrera egiten du. Mati Iturralde medikuak apirileko Hilabete-karian argitaratutako “Espetxea eta gaixotasuna” artikuluan zioen bezala, espetxea zer den dakien edonork gune osasungarria ez dela badaki, baina askatasunik gabe egotearen ondorioz espetxeak ez du gaixotasuna eragiten, osasun arazoa erraz konpon daitezkeen beste faktore batzuek eragiten dutelako, eta besteak beste, garbitasuna, elikadura, preso pilaketa eta osasun zerbitzu egoki eza aipatu behar dira. Baldintza hauek modu egokian beteko balira, giltzapean egonik ere osasun egoera onean egotea ez litzateke arazoa izango.

Hamarkadetan zehar Espainiako gobernu ezberdinek euskal presoekiko espetxe politika zehatzak burutu dituzte, eta horren ondorioz espetxe erregimenean salbuespen neurriak ziren aldaketa esanguratsuak ezarri ziren, bereziki sakabanaketa eta bakartzea. Sakabanaketa eta bakartzearen bidez saiakera ugari burutu dituzte, baina hala ere orain gaitz larriren bat pairatzen duten euskal presoek askatasuna etengabe ukatu egiten zaie edo presoak ia hiltzorian egon behar du, Josu Uribetxebarriaren kasuan gertatu zen bezala.

Baina neurri bihozgabe hauek ere ez dira aski izan eta Espainiako gobernuak krudelkeriaz jokatu du berriz ere. Josu Uribetxebarria etxean preso izan dute eta, gaitz larri baten ondorioz etxean espetxe zigorra modu arinduan betetzen ari zen Ibon Iparragirre espetxeratu dute.

Buru gaitzen bat pairatzen duten euskal presoek egoera ikusirik, espetxean egoteak ez du inolaz ere laguntzen gaitza artatzeko prozesuan, espetxeko egoeraren ondorioz gaitzak okerrera bidea hartzen duelako.

Hauxe da Aitzol Gogortza eta Txus Martinen egoera. Biak Basauri eta Zaballako espetxeetan bakarrik dauzkate eta beraien egoera gero eta kezka-garriagoa dela esan beharra dago. Espetxe sistema demokratiko batean honelako neurriak onartezinak direla ongi asko dakite, presoari zigor gehigarriak ezartzea baztertu behar delako eta, esate baterako, presoak ziega ilun batean jartzea edo zigor krudel, umiliagarria eta inhumanoak ezartzea, Nazio Batuen erakundeak adierazitakoaren ildotik, presoak zigortzeko guztiz debekatu behar dira.



Osasunaren Nazioarteko Erakundeak adierazitakoaren arabera espetxeko eta kanpoko bizitzaren arteko ezberdintasunak ahalik eta txikiena izan behar du osasun ikuspegi batetik. Eta horren ondorioz segurtasun baldintza zorrotzetan egon beharreko preso kopuruak ere txikiena izan behar du, osasun eskubidearekiko begirunea ziurtatzeko ezinbesteko baldintza delako.

Hala ere, Espainiako gobernuak euskal presoen bizi-baldintzetan hobekuntzarik txikiena ere lortzeko egindako gomendioak behin eta berriz baztertzen ditu, eta egoera hau ezagutarazi eta salatu beharra dago. Senideok eta adiskideok ahalik eta erakunde, talde eta elkarte gehienetan egoera hau ozenki salatu behar dugu.

Gizarteari egoera honen larritasuna jakinarazi behar zaio, gaitz larriren bat pairatzen duten euskal presoak espetxean dauden bitartean, estatuaren kru-delkeriak bake egoeratik urrundu eta bidegabekeria bizitzera behartzen gaituelako.

Egoera hain larria izanik, Etxeratek, maiatzean, alarma gorria pizteko erabakia hartu zuen. Publikoki, larriki gaixo dauden preso hauek espetxean mantentzeko dagoen erabakia salatu zuen, mina eta sufrimendua zabaltzeko dagoen erabakiaren aurka egin zuen.

Erabaki politiko bat dago honen guztiaren atzean. Mina eta samina luzatzeko erabaki politikoa. Datuak begiratzea besterik ez dago honen berri izateko. 2008 eta 2011 urteen artean 12 izan ziren espetxean egotetik, espetxeratze aginduan egotera (etxean preso) igaro zirenak, beraien gaixotasun larri eta sendaezina izateagatik legediak aurreikusten duen neurria delako. Kasu hauetan ere, ez da ahaztu behar oso prozesu luze eta zailtasunez beterikoa izan zela.

2011 - 2014 urteen artean, Bake prozesua zein ET'Aren su etenaren erabakiaren ostean, egoerak okerrera egin du. Ordutik hona 14 izan dira 2011. urtetik tramitatu diren askatasun eskaerak eta baiezkotutako erantzun bi soilik eman dira, horietako bat, amaiera fasean zegoena. Are gehiago Auzitegi Nazionalak kasu batean, espetxeratze arindua suspenditu eta gaixo larri eta sendaezina berriz espetxeratzea agindu izan du.



Honako hauek Etxeratek 2014an erregistratu dituen gertaera batzuk dira:

Ibon Iparragirre: ondarrutarra etxean preso zegoen larriki gaixo dagoe-lako. Iragan martxoaren 7an, Ertzaintzak Iparragirre atxilotu eta espetxe-ratu zuen. Geroztik espetxeratua dago. Espetxeratua bakarrik ez, HIESA C estadioan duen ondarrutarra sakabanatu eta isolatu egin dute. Navalcar-neroko espetxean –Madril- egon da, sorterritik 500 kilometrotara, eta egun Alcala-Mecoko espetxean dago, azaroaren 10ean espetxe horretara eraman baitzuten Navalcarneroko espetxetik.

Azpimarratu beharrekoa da une honetan IHESa 3. estadioan duela; hau da, ia muturreko egoeran. Egoera honek, eragin neurologiko oso kaltegarria eragin dio, bere eguneroko jarreran bai berarekiko baita bere ingurua-rekiko ondorio txarrak eragiten dizkiolako. Ez da ulertzen Ibon dagoen egoeran beste espetxe batera aldatzea, aldaketa hauek kalte baino ez diote-lako egiten bere egungo egoera neurologiko eta psikologikoan. Ibon Ipa-rragirre Navalcalcarneroko erizaindegian zuten orain arte, eta bat-batean Alcalá-Mecoko modulo batera eraman dute, inolako espetxe edo osasun arrazoi zehatzik aipatu gabe. Bat-bateko eta arrazoi objektibo argirik ga-beko aldaketa honek berarengan ez ezik, familiarengan eta jarraipena egi-ten dion asistentzia psikologikoan ere okerrerako eragiten du, bisitak eta jarraipena bera oztopatuz. Une honetan, eta hasieratik esan dugun bezala, Ibonentzat aldaketa egoki bakarra bere lehengo egoerara itzultzea litzate-ke: hau da, askatasun osoa eskuratzea onartzen ez bada, espetxeratu aurre-tik zegoen espetxeratze arinduaren neurria ezartzea berriz ere. Izan ere, bere osasun egoera eta bere osasun etorkizunaren espektatibak ez dira inolaz ere hobetu espetxean dagoenetik, alderantziz baizik.

Ibon Fernandez de Iradi: Ibonek gaixotasun degeneratibo bereziki larria pairatzen du: Esklerosi Anizkoitza (nerbio-sistema zentralaren gaixotasun larri, sendaezin, kroniko eta progresiboa), 2013ko urtarrilean diagnostika-tua. Epaileak aurtan izendatutako bi mediku adituk bat egin dute Ibonen gaixotasunaren larritasuna aztertzerakoan eta egoera honetan espetxean egotea guztiz kaltegarri dela ebatzi dute. Txosten honen aurrean, epaileak ekainean Ibonen kondena etetea onartu zuen, baina administrazio-penal motako arazoek ezinezkoa egin zuten oraindik ere Ibon kalean egotea.



Izan ere, Ibonek neurri administratibo baten menpe dago: estatu frantse-sean bizitzeko debekua. Eta afera hau argitu arte espetxean segitu beharko du.

Urriaren 30ean, epaileek Ibon Fernández preso mantentzearen aldeko epaia ezagutarazi egin zuten. Dei Auzitegiak ez zion suspentsio eskaerari erantzun nahi izan eta hirugarren azterketa mediko bat eskatu zuen. Modu honetan bost hilabete gehiago espetxean preso egotera behartzen dute. Auzia honen erantzuna 2015eko martxoaren 28an jakingo da, baina askatuko ote duten ezin da jakin.

Jose Ramon Lopez de Abetxuko: Taupada – markagailua jarri zioten Jose Ramon Lopez de Abetxuko, larriki gaixo dagoen Gasteizko preso politikoari. Ebakuntza iragan ostiralean egin zioten, pultsazioak oso baxu zitu-
tuelako.

Aurreko hilabetean Arabako preso politikoari ebakuntza egingo ziotela jakinarazi zioten, bere arazo kardiologikoak direla eta. Hilaren 18an ospitale-ratu zuten. Ostiralean ebakuntza-gelan sartu zuten eta larunbatean berriz espetxera eramán zuten. Ospitaletik presoari ebakuntza egin behar ziotela jakinarazteko senideei deitu zieten, baina, ez zieten, osterá, presoá ospitalean bertan bisitatzen utzi.

Familiak ezin izan zuen, hortaz, presoá bisitatu ez ospitalean ezta espetxean ere, aurreikusita zuten aurrez aurrekoa ezin izan zutelako egin. Jose Ramon Lopez de Abetxuko bazkaldu gabe aterá zuten ospitaletik espetxera eramateko.

Jose Migel Etxeandia: Bi hilabetero bezala, Jose Miguel Etxeandiak eta bere psikologoak elkarrekin saio terapeutiko bat burutzeko eskaria egin zuten hiru aste lehenago. Saioa, irailaren 22an, astelehena, goizeko 9:30etan egin behar zuten Topaseko espetxean, Salamancan.



Prozedura hau bi hilabetero errepikatzen da, baina, irailaren 19an, Etxeandiarri Madriletik notifikazio bat ailegatu zitzaion eta bertan “terapia saioa bururtzeko baimena tramitazio prozesuan” zegoela adierazten zen. Lehen aldia zen presoak tankera honetako idazki bat jasotzen zuela eta larriki gaixo dagoen presoak senideei jakinarazi zien eta senideek psikologoari. Psikologoari espetxe zuzendaritzatik ez zioten ezertxo ere jakinarazi.

Igandean, hilaren 21ean, Etxeandia bisitatzerantz joan zen pertsonak idazki horretan adierazitakoa baieztatu zuen, bestelako erantzunik ez zegoelako. Etxeandia ordura arte espetxezainei egunero galdezka aritu zitzaient eta honela erantzuten zioten, “Si no hay otro tipo de respuesta, esto es lo que hay”. Hori dela eta, psikologoa espetxerako bidaian abiatua zegoen arren, kontraesanak kontraesan, auzi hau konpondu bitartean atzera egitea erabaki zuen eta Euskal herrira itzuli zen.

Hilaren 22an, goizeko 9etatik 12ak arte psikologoak espetxera deitu zuen eta auzi honetaz mintzatzen aritu zen -8 pertsona ezberdinekin solastu behar izan zuen-. Azkenekoak, “segurtasun” taldeko kide batek, bisita hilaren 22an egiteko onartua zegoela eta presoari hilaren 19an idatzirik jakinarazi zitzaiola aipatu zion. Honez gain, psikologoari hitzordura agertu ez izana leporatu zion, baita “instituzioak burutzen dituen prozedimenduen eraginkortasuna auzitan jartzea” ere.

Eguerdi aldera Etxeandiaren arrebak anaiarekin hitz egin zuen eta anaiak 13:00ak aldera funtzionario bat hurbildu zitzaiola esan zion, eskuan fotokopia bat zuela. Fotokopia horretan psikologoarekin hitzordua baimendua zuela adierazten zen eta hilaren 19an datatua zegoen. Arrebak psikologoari honen berri eman zion.

Aitzol Gogortza: Azaroaren 5ean Aitzol Gogortza oreretarra Basurtuko ospitalera eraman behar izan zuten arnas arazo larriengatik. Azaroaren 6an, birika tronboembolismo bat “tromboembolismo pulmonar”-a izan zuen, birika infartoa ematen duena. Oso krisi larriak dira biak ala biak. Momentuz Ospitalean jarraitu beharko du infartoaren inguruko frogak egin arte.



Aitzol Gogortza larriki eri dauden 10 euskal presoetako bat da eta Obsesio Konpulsio Nahasmen larria pairatzen du. Epaileek berriki 100.2. artikulua ukatu diote, baita espetxe zigorra etetea ere bere egoera larria izanik ere.

Xabier Aranburu: urte bete baino gehiagoko itxaronaldia eta gero, preso ondarrutarrak azkenik galdu zuen Lyongo Hospitalean eskatua zuen zita, abuztuaren 5erako. Besikulan dituen harritxoek min handia ematen diote Aranbururi. Abuztuaren 5ean preso hospitalera joateko prest zegoen vaina goiz horretan beratn funtzionarioen aldetik probokazioak jasotzen ibili zen, zeintzuk azkenean beraien helburua lortu zuten: Aranburu bere zeldatik eskuburdinekin ateratzea hospitaleko zirujauaren zita galduta. Zita horretan erabakiko zen Xabierri ebakuntza egingo zioten edo ez, eta gainera gero 20 eguneko zigor zeldako zigorra jaso zuen.



GAIXOTASUN LARRI ETA SENDAEZINAK: **Presoa eta diagnostikoa**

Jose txo Arizkuren Ruiz: kardiopatia iskemiko larria.

Garikoitz Arruarte Santa Cruz: Espondilitis ankilosantea.

Inmaculada Berriozabal Bernas: Pluripatologia: Hipertentsio larria, iraupen luzeko psoriasi artropatia, diabetesa, asma bronkiala, bizkarrezur-reko afektazio larria...

Iñaki Etxeberria Martin: Miopia Magnoa, erretina hemorragia, ikusmen zorroztasunaren galera larria.

Ibon Fernández Iradi: Esklerosi anizkoitza.

Aitzol Gogorza Otaegi: Obsesio-Konpulsio Nahasmena.

Ibon Iparragirre Burgoa: VIH C-III estadioko infekzioa, neurologia afektazio larriarekin.

Jose Ramón Lopez de Abetxuko: Bradikardia sistematikoa. Fibrilazio artikularra.

Jesús M^a Martin Hernando: Eskizofrenia paranoidea.



2.2 Istripuak

Dispersioak guri zuzenean eragiten digun salbuespen espetxe neurri bat da, euskal preso politikoen senide eta lagunak izateagatik. Milaka eta ehunka kilometro ibiltzera derrigortuak gaude, gure senideak minutu eskasak ikusteko helburu bakarrarekin. Gure osasunean dituen kalteari, gaurarte errepidean gertatu diren eta 16 hildako eragin dituen ezebeharrak erantsi behar diogu. 2014an 10 ezbehar eman dira non bisitak egiteko asmo bakarrez errepidean jarritako 25 senide eta lagunegon eraginduak izan diren.

Urteetan zehar egindako bidaia hauek higadura psikologiko eta fisiko gogorak eragiten dituzte, zenbait kasutan osasuna errepidean uzteraino. Eta honi guztiari gastu ekonomiko jasanezina ere gehitu behar zaio. Bisita batetik gora behera handiak izan ditzake senideontzat, eta urte honetan zehar larritu gaituzten zenbait gertaera errepikatu dira zoritxarrez

Otsailaren 8an, Harriet Iragi eta Raul Alonso euskal preso politikoen hiru lagunek istripua izan zuten Castellon II-ko espetxerako bidean. Halako batean basurde bat errepidera atera zitzaien eta jo egin zuten. Kotxeak kalte handiak izan zituen, baina bisita burutzea lortu zuten.

Martxoaren 1ean, Villabonako espetxean dagoen Anartz Oiartzabalen neska lagunak istripua izan zuen. Bisita egitetik bueltan zetorrela, Deba inguruan kotxearen kontrola galdu zuen. Berari ez zitzaion ezer gertatu, baina kotxeak kalte ugari izan zuen. Aurretik leku berean beste istripu bat gertatu zen eta agian olio edo gasolina egon zitekeen errepidean.

Martxoaren 22an, Topaseko espetxerako bidean, Gaizka Astorkizaga, Txente Askasibar eta Xabier Ugarte presoek bikotekideei Burgos aldean istripua gertatu zitzaien, txakur bat errepidera atera zenean. Ez zen kalte larriegirik suertatu.

Ekainaren 7an, Maitane Linazasoro euskal preso politikoaren hiru laguni Topasko espetxerako bidean istripua gertatu zitzaien, baina ez zen inor zauritu. Istripua Burgosen gertatu zen, Briviescan, bidera bi orkatz atera eta gero. Goizeko 06.00ak aldera, Burgosera iristear zeudela, bi orkatz ikusi zituzten autobidean eta, horietako bat ekiditea lortu arren, kotxeak



bigarrena jo egin zuen. Presoaren lagunek kalterik jasan ez bazuten ere, kotxea erabat suntsiturik geratu zen. Gainera, bisita egitera ere ez ziren iritsi.

Ekainaren 14an, Iker Lima preso galdakaoztarraren lagunek auto istripua izan zuten Tordesillasen, Cacereseko espetxerako bidean zeudela. Istripua autobidean gertatu zen, errail erdian zegoen kamioi baten gurpila jo ostean. Autoan zeuden lagunek ez zuten, zorionez, kalterik jasan. Ibilgailuak kalte txikiak izan zituen eta bidaia jarraitu ahal izan zuten. Dispersioak eragindako urteko bostgarren istripua izan zen Iker Limaren lagunek jasandakoa.

Uztailaren 2an, Oscar Cadenas euskal preso politikoaren senideek istripua izan zuten Murcia II espetxetik etxerako bidean. Ibilgailuak kamioi baten aurka talka egin zuen, baina barruan zeuden bost lagunak ez ziren zauriturik suertatu. Ezbeharra Andoainen gertatu zen, senitartekoek Euskal herritik Murtziarako joan-etorria egiteko ia 2000 kilometro egin eta gero.

Uztailaren 4an, Puerto III espetxean dagoen Jesus Mari Etxebarria “Goierri”, Oreretako euskal preso politikoaren lagunek istripua izan zuten aurreko asteburuan, bisitatik bueltan zetoze. Burgos aldean zeudenean, kamioi batek kargako pieza bat galdu zuen eta erortzean gasolinontzian jo zuen. Kolpearen ondorioz gasolinontzia urratu egin zen eta kamioia autobidean gasolioa isurtzen hasi zen. Hori zela eta, atzeko hiru ibilgailuek talka egin zuten. Bisitatik etxerantz zetozen bi lagunak onik atera ziren

Uztailaren 19an, Alacant-en dagoen Villena espetxera zihoan Mirentxin furgonetak istripua izan zuen espetxera iristear zegoela. Horma bat jo zuen furgonetak. Barruan zeuden sei bidaiariak onik atera ziren. Villenako espetxera iristeko senideek astebururo 1400 kilometro egin behar dituzte.

Irailaren 14an, Ugaitz Perez euskal preso politikoaren senideek istripu oso larria izan zuten Tuteran. Zauririk larrienak Etxerateko bozeramaile izaniko Jone Artolak pairatu zituen. Hiru saihestu apurtu zitzaizkion, esternoian urradura jasan zuen eta humero hezurra hiru lekutatik apurtu zitzaion. Ebakuntza egin behar izan zioten eta Basauriko ospitalean 12 egun eman zituen. Artolarekin batera zihoazen beste bi senideak, ordea, ez zituzten



ospitaleratu, baina jasandako kolpe eta izaniko ebakiduren ondorioz sendatzeko egunak behar izan zituzten.

Castellon II espetxetik etxerantz zetoze gertatu zen ezbeharra, Euskal Herritik 590 kilometrotara dagoen espetxera joan-etorria egin ostean. Aurkako norabidean zihoan ibilgailu batek kontrola galdu zuen, autobideko mediana zeharkatu zuen eta Jone Artola eta besteak zihoazen errailean sartu zen. Horren ondorioz, istripu larria gertatu zen. Istripua eragin zuen ibilgailuan zihoan 31 urteko emakume bat zendu zen. Senideen ibilgailutik Artolaren bikotekidea eta semea aurreko leihotik atera ziren, biak aurrean baitzeuden, ibilgailuaren ateak ezin zirelako zabaltu. Jone Artola, ordea, ibilgailutik atera ezinik geratu zen. Gerora atera behar izan zuten Artola, atzeko leihotik.

2.3 Komunikatzeko Eskubide Urraketa

Hamaika dira aurrez aurrekoak galtzeko espetxe arduradunek aipatutako arrazoiak. Espetxeetaraino bidaia luzea egin ostean askotan senideei aurrez aurrekoetara sartzeari debekatu diete. Hona hemen kasu horietako batzuk.

BERTAN BEHERA GERATUTAKO KOMUNIKAZIOAK:

Herrera Mancha: Faustino Marcos Alvarez preso donostiarraren anaiak espetxeko sarreraren drogen aurkako Kontrol zorrotz batekin egin zuen topo non Guardia Zibila txakurrekin zegoen. Kontrolaren emaita negatiboa izan zenean ere, bisita suspenditu zioten.

Sevilla II: Rufino Arriaga euskal preso politikoa bisitarik gabe utzi zuten maiatzaren 31n. Lagunen bisitaren zain zegoen Arriaga baina, espetxeko arduradunek ez zieten lagunei sartzeari utzi. Eguerdiko 13.00etan zuten bisita Sevillan. Euskal Herritik Sevillaraino dauden 900 kilometroak egin ostean, 12:35etan iritsi arren bisita egiten ez zieten utzi beranduegi iritsi omen zirelako.



Segovia: Ekainaren 7an Jon Enparantza euskal preso politikoa ikustera joan ziren lagunak ezin izan ziren bisitara sartu. Joan-etorrian 918 km egin zituzten.

Seysses: Martxoaren 21ean Ruben Rivero Campo preso politikoaren bikotekidea agintaritzaren kontrako mehatxuak egiteagatik epaitu zuten Toulouse. Gertakariak otsailaren 7an izan ziren. Neskak bere bisita baimena indargabetua zuela jakin zuenean, azalpen eske espetxeko funtzionarioen nagusi batekin elkarrizketa labur bat izan zuen. Horren ostean funtzionarioak neska salatu zuen. Epaileak erruduntzat jo zuen gaztea eta honako zigorra ezarri zion: 1000 euroko isuna, 600 euroko kalte ordaina salatzaileari eta salatzailearen abokatuaren gastuak ordaintzeko 500 euro.

Seysses: Urtarrilean Julen Mujika euskal presoaren senide batek bisita galdu zuen arkupetik igarotzean titizorroak hiru aldiz soinua egin zuelako. Kentzea proposatu zuen, baina funtzionarioek bortizki erantzun zioten. Kanpora bultzatu zuten eta bisitara sartzea debekatu zioten. Berarekin bere senarra etorri zen eta berari bakarrik utzi zioten sartzen.



2.4 Intimitaterako Eskubide Urraketa

Senideei bideratutako miaketak zorizkoak izan ohi dira, baina zenbait kasutan, umiliazioa eta intimitaterako eskubidearen urraketa suposatzen duenez, uko egiten diote senideek baldintza horietan bisita egiteari, besteak beste biluzte integralak eta ukitzeen kasuetan.

Zoritzarrez, ohiko miaketez gain ohikoa bilakatzen ari da polizia zakurrekin senideengana gerturatzea, zakurrek usain gaitzaten. Egoera honek tentsio une handiak sortzen ditu, batez ere zakurrak umeengana gerturatzaren direnean.

Miaketetan izaten diren zenbait egoera edo gertaeren ondorioz, nahiko ohikoa da senide eta lagunok bisitarik gabe gelditzea ere. Esate baterako, usaintzen gaituzten txakurrak gure aurrean esertzen badira bisitarik gabe gelditzen gara, edo, adibidez, ebakuntza baten ondorioz protesia duen laguna bisitarik gabe uztea gertatu izan da, eskatzen dituzten sendagilearen beharrezko agiri guztiak espetxera eramanez.

Soto del Real: Iragan urriaren 10, 11 eta 12an, Soto del Real espetxean ezohiko eta intimitate eskubidearen aurkako miaketa umiliagarriak egiten saiatu ziren bertako funtzionarioak. Inongo arrazoirik argudiatu gabe, bertan espetxeratuak dauden euskal preso politikoen senide eta lagunek miaketa saiakerak pairatu zituzten.

Senideek miaketa umiliagarri hauek pairatzeari uko egin zioten eta, horren ondorioz, lau aurrez aurreko galdu egin ziren. Espetxeraino 450 bat kilometroko bidaia egin ostean lau aurrez aurreko galdu ziren.

Senideek funtzionarioei jasotako errekerimenduaren kopia emateko eskatu bazieten ere, ez zieten kopiarik eman. Funtzionarioek bi arrazoi aipatu zituzten: goitik zetorren agindua zela eta agindu menturazkoa zela. Bigarren argudio hau gezurra dela argi dago, euskal preso politikoen senideen aurkako neurria izan zelako soilik.

Egoera honen aurrean, Etxerat elkarteak, normatibak 48.7 puntuan dioena gogora ekarri nahi du, miaketa eta komunikazioei buruzko atala dela eta:



“Aurreikusitako komunikazioetan, komunikazioan dauden bisitarien intimitatea ahal bezainbeste bermatuko da. Erabateko biluzteak 68. artikulua dionaren arabera egingo dira soilik, hau da, arrazoiak behar bezala argudiatuta daudenean.

Bisitariak biluzteari uko egingo balio, bisita bertan behera geratuko da”

Alacant: Lexuri Gallastegi euskal preso politikoaren senideek azaroaren 15ean(larunbata) arazoak izan zituzten, funtzionarioek burutu nahi izan zituzten miaketak zirela eta. Beraz, horren ondorioz senide bat ez zen aurrez aurrekora sartu.

2.5 Tratu krudel, umiliagari eta ankerrak

2.5.1 Erasoak:

Gure senide eta lagunek bizi baldintza gogorak jasan behar izaten dituzte espetxean, eta horrez gain, funtzionarioen aldetik jasan behar izaten dituzten irainak, probokazioak eta erasoak ugariak izaten dira. Jarrera oldarkorak eta bortitzak jasan behar izaten dituzte, tentsio une handiak bizi dituzte, eta zenbait kasutan jarrera hauek presoek jasaten dituzten eraso fisikoetan islatzen dira.

Ez hori bakarrik, presoak etengabe horrelako egoeran bizitzeak izugarri-zko ondorio fisiko zein psikologikoak ditu gure senide eta lagunengan. 4 euskal preso politikok erasoak jasan dituzte:

Liancourt: Urtarrilaren 2an, Mikel Oroz presoak funtzionario baten eraso jasan zuen, etxera deitu ondoren patiora zihoala. Gertaera kamara batek grabatu bazuen ere, espetxeak kamara hondatua zegoela argudiatu du. Funtzionarioa ezaguna da espetxean preso gehiagorekin liskarrak izan dituelako. Sendagileak Mikel Oroz artatu zuen. Azterketaren emaitza: kontraktura lepoan eta traumatismoak besoetan eta sorbaldan.



Pariseko «Palais de Justice»: Urtarrilaren 8an Raul Aduna euskal preso politikoa bortizki erasotu zuten Pariseko Epaitegiaren kalabozoetan. Adunak ziega preso arrunt batekin partekatzeari uko egin zion eta protesta egiteko, modu pasibo gisa, lurrean eseri eta funtzionarioen arduradunarengana eraman zezatela eskatu zuen. Tentsio une horien ondorioz, Raul Adunak ez du erasoan gertatutakoa zehazki gogoratzen eta konortea galdu ote zuen ere ez daki ziur. Hala eta guztiz ere, hanka batetik helduta korridorean barrena arrastaka eraman zutela, paparretik helduta «panpin baten gisan» altxarazi zutela eta nola jakin gabe lurrean bukatu zuela gogoratzen zuen. Era berean, buruan eta atzealdean kolpeak jaso zituen. Funtzionarioen arduraduna ziegara joan zitzaion ondoren, eta espetxezainak kolpatu izana egotzi zion preso gasteiztarrari. Disziplina batzordeak 20 egunez mitard-ean egoteko zigorra ezarri zion, baina ez zituen bete behar izan.

Murtzia II: espetxean dagoen Oier Andueza euskal preso politikoa jipoitu egin zuten. Goizean, kiroldegira jaitsi eta futbol baloia falta zelako liskarra izan zuen funtzionarioekin. Anduezak orduan, plaka zenbakia emateko eskatu zion funtzionarioari. Honek eskatutakoa egiteari uko egin zion eta, gainera, biluzteko agindu zion durangarrari.

Anduezak orduan, bata eskatu zion araudian legez jasota dagoena, eta berriaz ezetza jaso zuen. Bat- batean, lau funtzionariok preso durangarra erasotu, eskuburdinak jarri eta, isolamendura eraman zuten.

Pariseko «Palais de Justice»: Kepa Arkauz arrasateko euskal preso politikoa iraso egin zioten Parisko Justizia Jauregiko gendarmeei iragan uztailearen 16an. Le Vert epaileak deituta entzute gira eraman zuten euskal herritarra galdeketa egiteko. Bertara iristean funtzionarioak probokatzen hasi zitzaizkion, “ez nengoela nire etxean, bertan beste euskaldunik ez zegoela” eta horrelakoak aipatu zizkieten, Igor Uriarte euskal preso bertan egon arren.

Preso arrunt batekin zelda partekatu behar zuela esan ziotenean, arrasatearrak ez zuen onartu eta azalpenak eman zizkion funtzionarioari. Berriekin hitz egin eta bakarrik geldituko zela aipatu ziotenean zeldan sartu zen, baina une hori preso arrunta ere zelda berean sartzeko probestu zuten. Honetaz jabetu zenean, kanporantz bultzaka hasi zen eta lau



funtzionarioen artean heldu zuten orduan. Funtzionarioetako batek besoa lepotik bueltan pasatu zion eta gogor estutzen hasi zitzaion, ito nahi izango balu bezalaxe. Bitartean besteek eskuetatik hartu zuten eta lurrera botatzen saiatu ziren. Lauen artean helduta bazuten ere, zeldatik ateratzea lortu zuen eta atetik 5 m aldentu zen. Lurrera erortzen ez zela ikusirik, bertan askatu eta tonu gogorrean elkarrizketa bat izan zuten.

Erabakia aldatuko ez zuela jabetu zirenean, ziegan bakarrik utzi zuten. Oihuak eta zarata entzun eta gero, goiko pasiloko ziega batean zegoen Igor Uriarte deika hasi zitzaion. Beraz, beraien arteko komunikazioa eteteko, beste galeria batera mugitu zuten.

Erasoaren ondorioz lepoaren atzealdean atzamarkada bat eta ubeldura txiki bat izan ditu.

Fleury Merogis espetxean, Andoni Goikoetxea Gabirondo euskal preso politikoa Fleuryko espetxean erasotua izan zen. Irailaren 8an hitzordua zuen Goikoetxeak erizaindegian, goizeko 8:00etan. Orduan gertatu zen erasoak Fleuryko espetxean dagoen erizaindegira doan pasilloan identifikazioa erakusteko momentuan dokumentua erakustean gelditu ez zelako.

Andonik aurrera jarraitu zuen eta iada erizaindegiko atean, oraindik atea ireki gabe, funtzionarioak bi aldiz bultzatu zuen. Erizaindegiko atea ireki nahi zuenean Funtzionarioa atean jarri zen, Andoniri pasatzen ez uzteko. Andonik aurrera jarraitu zuen indarrez eta biek oreka galdu zuten, ia lurrera erori zirela. Une horretan, erizaindegian ziren bi funtzionario etorri ziren eta Andoni lurrera bota zuten inobilizatuta. Lurrean zegoela, buruan bi ostiko eta bizkarrean Erizaindegiko hitzordua eskuburdinak jarrita egin zuen. Hori bukatu eta berehalaxe zigor ziegara eraman zuten 10 eguneko zigorra betetzeko.



Lyon Corbás: Azaroa erdialdera Parisen Alex Zobaran, Urko Labaka, Iban Saez de Jauregi eta Mikel Orozen epaiketa izan zen. Epaiketa eta gero Alex eta Urko Lyoneko espetxera bueltatu zituzten, baina espetxeratze nahiko bortitza jasan zuten, non espetxeko funtzionarioek aldeztu aurretik eta espetxe horretan betidanik eraman izan dituen sinbolo eta lepoko batzuk kenduarazi zizkieten baita jaztea debekatu ere Alex Zobarani. Alex zigor zeldara arrastraka eta modu oso bortitzean eramana izan zen (isolamendura) izara bakar batekin pasarazi ziote, jakinda gauetan handik egiten duen hotzarekin.

Bestalde, epaiketa eta gero, “ecrou” zenbakia (presoaren zenbakia) aldatzen zaien frantziar espetxeetan, aurretik eskatuak zituen zenbait visita galduarazi zizkieten. Alexen senide eta lagun batzuek abendu erdialderarte bera ikusi ezingo dutelarik (veste data librerik ez zegoelako). Gainera dirua hartzeko konturako baimena blokeatu diote.

2.5.2 Senideekiko Jazarpena

Ocaña: Azken hilabeteetan, euskal preso politikoen senide eta lagunak aurkako jazarpena nabaria izan da. Urtarrilean senideak atzetik zebizkiela ohartu ziren, baina geroztik egoerak okerrera egin du. Jarraipenei kontrolak, identifikazioak eta senideen lo lekuetan poliziek eginiko agerpenak gehitu behar zaizkie.

Burlatako alkateak Etxeratek urteko Nazio Batzarra egiteko Burlatako Kultur Etxeko auditorioan erabiltzeko egindako baimena ukatu zuen. Udaleko web gunean espazio honen erabilera bai bilkurak, batzarrak, kongresuak eta bestelakoak egiteko alokairua “edozen elkarte, sindikatu edo eragile kulturali alokatzeko” eskaintzen duen, eta elkarte honen dokumentazio eta behar zen paper guztiak aurkeztu baziren ere, erabilera egitea ukatu zion Etxerati. Are gehiago, erantzuna noiz eman asko atzeratu zuen, Etxeratek batzarra egin baino aste bete lehenago alkateak erabaki arbitrario eta aurkako honen berri eman arte, beraz ezinbestea batzarr bertan behera uztera derrigortu zuen elkarteak. Etxeratek prentsa agerraldi bat antolatu zuen osterako Kultur Etxe honen aurrean erabakiaren nolakotasunak azaltzeko eta salaketa egiteko. Hartan egondako senide eta lagun batzuei, 6 hilabete beranduago, Gobernu delegaritzak, prentsaurreko horren harira, 600 eta 900 eurotako izunak jarri dizkien.



Puerto III: Maiatzaren 23an, Lopidanako gasolindegian guardia zibilak Cadizko espetxeetara joaten den autobusean zeuden senideak kontrolatu egin zituen. Bidetik aterarazi ondoren, senideak autobusetik atera eta identifikatu egin zituen. Lehen aldiz bisitara joaten zen gazte bat bazter utzi zuten eta galdeketa egin zioten. Kontrola senideentzat propio jarritakoa zen, Gasteizko industrialde batean.

Nagore Mujika: Urriaren 18an guardia zibilak euskal preso baten senidea den Nagore Mujika atxilotu egin zuen. Atxiloketa erarik krudelenean gauzatu zuten. Nagore sei urteko bere alabarekin Villenan zegoen, Euskal Herritik 700 bat kilometrotara, eta bertan espetxeratua dagoen bikotekidearekin aurrez aurrekoa izan ostean atxilotu egin zuten. Atxilotzeko agindua asteartean zabaldu bazen ere, larunbatean atxilotu egin zuten. Epailearen aurretik astelehenean igaro ostean, espetxeratu egin zuten. Espetxeratu eta lau egunen buruan, berriz, fidantzarik gabe askatu egin zuten. Etxeratek ez du ulertzen Nagore zergatik atxilotu zuten era horretan. Nagorek bizi-modu normala egiten du eta epailearen bulegora azaltzeko zitazioa etxera bidaltzeko aukera zegoen.

Azaroaren 14an Parisen atxilotua izan zen Eider Uruburu bizkaitarra, bere bikotea epaitua izaten ari zelarik. Eiderrek, preso politiko ohiak bazuen Estatu frantsesera sartzeko debekua, beraz ukatua du bere bikotekidea ikusteko eskubidea urteetan. Epaiketara joatea zen Eiderrentzat bere bikotea ikusi ahal izateko aukera bakarra. Bertan zegoela, epaiketak ezagutu zuten eta ondorioz atxilotu eta espetxeratua izan zen. Pasa den azaroaren 24an, epaile frantsesak Eider 8 hilabete espetxean egotera zigortu zuen.

Dispertsioaz eta urruntzeaz gain, isolamendua eta zigorraren luzapena ere badira senide eta lagunok aurre egin beharreko bestelako salbuespen neurriak. Une honetan, familia asko eta asko dira Estatu frantsesera beraien senitartekoak eta lagunak ikustera joan ezin dutenak, neurri zorrotz eta krudel honek ez baitu baimentzen urte luzeetan beraien arten ikusi ahal izatea.



2.5.3 Laguntza Emateko Beharraren Ukoa

Uztailaren 26an Badajozko espetxean Igor Gonzalezen amarentzat anbulantzia eskatzeari uko egin zioten. Egun horretan Bixenta Sola bilbotarrak goizean aurrez aurreko bisita zuen semearekin, Badajozko espetxean. Igor Gonzalez Sola euskal preso politikoa bere ama eta bi urteko semearen bisitaren zain zegoen asteburu horretan. Bisita laburra izan zen, Euskal Herri-tik 700 kilometrotara. Bixentak adinari dagozkion osasun arazoak ditu eta horrexegatik aurrez aurrekoak beheko solairuko gela batean egiten dituzte.

Igor Gonzalez Sola, Bixenta Sola eta umetxoa gela horretan zeuden ezbeharra gertatu zenean. Aurrez aurrekoa izaten ari zirela, Bixenta irristatu zen eta hormaren aurka jo zuen buruarekin. Buruan zauri handia egin eta odol ugari isurtzen hasi zen. Odola ikustean, larrialdi alarma jo zuten behin eta berriz, baina ez zebilen. Igor, oso larrituta, ate joka eta oihuka hasi zen, odolak etenik ez zuelako. Dena umetxo izutuaren aurrean gertatu zen. Espetxea, odola, adineko pertsona bat, izua...

Igor 25 minutu luzez atean jo eta jo aritu ondoren, funtzionarioak agertu ziren. Igorrek anbulantzia bat deitzeko eskaera egin zuen, baina funtzionarioek anbulantziari ez ziotela deituko esan zuten. Orduan sendagileari deitzeko eskatu zuen, baina moduluan ez zegoela eta, gainera, ezin izango zela gerturatu erantzun zioten. Telefonoa hartzeko aukera ere eskatu zuten, anbulantzia deitu ahal izateko, baina funtzionarioek hau ere ukatu egin zioten.

Zarata eta oihuak entzutean, aurrez-aurrekoa egiten ari zen beste senide bat gerturatu zen, eta bere laguntzari esker Bixenta espetxetik atera zen, espetxeko funtzionarioek ez baitzuten laguntzarik eskaini. Orduan sendagilea eta erizaina agertu ziren, baina ordurako larrialdietara euren kontura joatea erabakia zuten bi senideek.

Behin espetxeko kanpoaldean zeudela, Bixentari espetxeraino lagundu zioten lagunak egoera horretan zegoela ikusirik larritu egin ziren, burua zapi batez estalirik eta odoleztaturik zuela ohartu zirelako eta Badajozko larrialdietara eraman zuten. Azkenean, larrialdietara heldu eta buruan egindako zaurian 12 grapa jarri behar izan zizkioten.



ESPETXETAKO BIZI BALDINTZEN GOGORTZE OROKORRA

Murcia II: Presoak moduluz aldatu dituzte are multzo txikiagoetan (jende kopuru txikiago batean) egoteko, eta binaka daude euskal presoak.

Puerto III: Abenduaren 12an, Oscar Barrerasi miaketa oso zorrotza egin zioten ziegan, formak lekuz kanpo zeudelarik. Ordubete iraun zuen eta dena hankaz gora utzi arte.

Monsanto (Portugal): Andoni Zengotitabengoak bakarrik eta oso baldintza gogorretan egoten jarraitzen du. Abokatuen eta senideen bisitak jaso ditzake soilik. Senideekin bisitak mintzatokian egin ditzake soilik, kristala tartean dela. Eta bere alabekin urtean behin soilik egon daiteke kristalik gabe.

Algeciras: Espetxe barneko komunikazioak 40 minutukoak izatetik 20 minutukoak izatera igaro dira.

Granada eta Logroño: Aurrez aurreko bisitetara ez diete ezer sartzen uzten, ez janaririk, ez eta haurrentzako jostailurik edo gauzarik ere. Granadako espetxean gainera, familiarrak diren aurrez aurreko bisitetara ezin da bikotekidea bakarrik sartu.

Jaen: Euria egiten duenean, ustez hormetatik ura sartzen zaie eta ziega guztia urez beteta izaten dute. Aitor Garcia euskal preso, esaterako, lo egiteko koltxoirik gabe egon da. Euria sartu eta koltxoia busti egin zitzaion. Beraz, lehortzen utzi behar izan zuen.

Puerto III: Espetxeko demandaderoa kendu diete, hau da, zenbait produktu erosteko zuten aukera bakarra kendu diete, bereziki janaria, fruituak, esnekiak eta honelakoak.



Poitiers Vivonne: Alaitz Aramendi eta Izaskun Lesaka presoak DPS (berreziki zaindutako presoak) moduan sailkatu dituzte, eta lau hilabetez, gaue-ro, bi orduro, kontrola egiten zieten: begizuloetatik begiratzen zieten, argiak pizten zituzten, soinua egiten zuten... Hau dela eta, bi presoek oso gau txarrak pasatzen zituzten eta honelako egoerak ondorio fisiko nahiz psikologikoak sortzen ditu.

Fleury-Mérogis: Ekhine Eizagirre Zarauzko presoak 21 egunez bisitak kristalarekin eta interfonoarekin egitera zigortu dute. Zigor hau, aurreko hilabetean izandako bisita baten osteko biluzketan gertatu zen istiluaren ondorioz izan da. Bisitak izan ostean presoak gela txiki eta estu batean biluzarazi egiten dituzte, funtzionario bat aurrean dutela.

Egun horretan, funtzionarioak Eizagirreri biluzteko eskatu zion. Biluztu zen eta ondoren euskal preso politikoek onartzen ez dituzten kontu batzuk egitera behartu nahi izan zuten, besteak beste, bizkarra erakutsi, belarriak begiratu eta abar. Eizagirrek umilaziorik onartu ez zuen eta funtzionarioak ardura handiagoko beste funtzionario batzuei deitu zien. Gelan bakarrik gelditu zen eta luze joko zuela ikusita, pasillora atera zen Eizagirre. Istilua pasillo erdian gertatu zen. Funtzionario ugari gerturatu zitzaizkion Eizagirreri biluztu zedin. Honek ezetz erantzun zuen baina, indarrez mugitu nahi zutela sumatu zuen eta egoerak okerrera egin ez zezan protesta moduan pasilloan biluztea erabaki zuen bere duintasuna aldarrikatzeko. Eki-men honen ondorioz, 21 eguneko zigorra eman zioten.

Aranjuez: Espetxe honetan amen moduloa dago non presoek umeak 3 urte bete arte egon daitezkeen. Umeek amekin egoteko aukera dute baina, espetxe honetako baldintzek okerrera egin dute azken hilabeteetan, beraz Etxeratek propio txosten berezitua prestatuko du umeen egoeraren inguruan.

Fleury Merogis: Fleuryko espetxean bizi baldintzak okerrera egiten ari dira. Orain arte, bisiten ostean, euskal preso politikoak edo “erraketa” batekin miatu edo gela batera eramaten zituzten biluztu eta gorputz miaketa bat egiteko. Arropak banan banan hartzen zituzten eta erraketa baten bidez arakatu egiten zituzten. Gero, euren ariketa arraroak eginarazten hasi



zitzaien hankak altxatuz, batzutan belaunetan ipinita salto egin eta abar. Neurri hau euskaldunentzako neurri berria da, euskaldunei bakarrik egiten baitzaie tratatu umiliagarria.

Rennes: Lorentxa Guimon euskal presoaren aita zen Xabier Guimon urtarrilaren 23an hil zen, baina aitaren ehorzketetara joateko baimena ukatu zioten.

Iruñea: Luis Goñi presoari bere amonaren hiletara joateko baimena ukatu diote. Luis Iruñeko espetxean dago eta abenduaren 17an bere amona hil zen. Beraz hiletara joateko eskaera eskatzerakoan, ahoz elizkizunetara edo amonaren gorpua erretzeko ekitaldira joan nahi ote zuen aukeratu behar zuela esan zioten, eta berak bigarrena aukeratu zuen. Abenduaren 18an, beraz, erretze prozesura joateko eskaera egin zuen, baina egun horretan bertan ukatu zioten. Baimen berezi hauek LOGP-ko 47. artikuluan eta RP-ko 155. artikuluan aurreikusten dira eta berez ez zegoen baimena ukatzeko arrazoirik.



ESPETXEALDI LUZEA. BIZI OSOKO ZIGORRA. BALDINTZAPEKO ASKATASUNA.

Frantziar estatuan, bizi osorako espetxe zigorrari dagokionez, ez da urte kopuru maximorik. Biziarteko zigorrera (“perpétuité” deitzen duten neurria) kondenatua den preso batek baldintzapeco askatasuna eska dezake 15 urteren buruan (edo “segurtasun kondena” bete ondoan, kondenari neurri hau gehitzen bazaio), baina erabakia Kondenen Aplikapenen Epailearen esku dago, eta honek etengabe uka dezake. Preso sozial batzuek kasik 50 urte pasa dituzte Frantziako espetxeetan.

Euskal preso politikoen artean, 4 neurri honen pean daude gaur egun:

24garren urtea betetzen ari diren Jakes Esnal, Frederik Haranburu eta Ion Kepa Parot, eta 2013an kondenatu duten Mikel Karrera. Beste hainbat euskal presori ere bizi arteko zigorra “de facto” ezarri zaie, oso kondena luzeak emanik edota kondena ezberdinak akumulatuz.

Espainiar estatuari dagokionez, bizi osorako zigorra ahalbidetzen zuen 197/2006 doktrina indargabetu ostean, gure senide eta lagun ugari 40 urteko espetxe zigorra betetzera zigortu dituzte.

Hau da, bizi osorako espetxe zigorrak ezartzen dizkiete.

Giza eskubideen urraketa izugarria da pertsona batek 20 urtetik gora igarotzea espetxean preso, bai bertan bizi duten egoeragatik eta baita egoera honek dituen ondorio fisiko nahiz psikologikoengatik ere. 20 urtetik gora



espetxean igarotzea bizi osorako espetxe zigorraren antzekoa da, eta zenbait kasutan hil arteko zigorra izan daiteke.

Egun, 473 euskal presok osaturiko kolektibotik:
35 euskal preso politikok 20 urte baino gehiago daramatzate espetxean.

Baldintzapeko askatasuna ukatzea euskal preso politikoei ezartzen zaien beste salbuespen neurri bat da. Salbuespen neurri honen bidez estatu espainiar zein frantziar espetxeetan preso jarraitzen dute beraien zigorra guztiz bete arte.



IKASTEKO ESKUBIDEAREN URRAKETA

Urte gazi-gozoa izan da 2014: gozoa, hezkuntza komunitatetik jaso dugun sostengu anitza, eta gazia, erakundeetatik jaso dugun jokabide kontrae-sankorra, hots, aldeko diskurtso eta errealtate mingotsa.

Bihotzez eskertzen diogu hezkuntzan lan egiten duen hainbat eta hainbat jenderi musu truk, elkartasunez, gure senitarteko presoek ikas dezaten egiten duen borondateko lana, euren gain hartu baitute lan zama gehigarria, kudeaketan, jarraipen akademikoan, tutoretzan... baita sakabanaketak dakarren bidaien zama ere.

Batek baino gehiagok azaldu digu, espetxerako bidaia horiek eginez, ulertu duela sakabanaketak dakarkigun kaltea, hots, eurek urtean behin egiten duten bidaia, guk astero-astero egin behar izatea; edota espetxe barruan ikas-teak duen meritua: ziegan, bakarrik, azalpenik gabe, ikasteko material urria, zarata, tentsioa... maiz, aprobetxamendua eredugarria dela nabarmenduz.

Ikasketei bidea zabaltzea, oro har, eskubide urraketa anitzen aurka borrokatzea, bide aldapatsua eta neketsua izaten da, baina bidelagun onek atseginagoa egin digute ibilbidea. Berriro ere, eskerrik anitz guztioi.



1. Unibertsitate Ikasketak

Lege anitzek babeste dute presoen hezkuntza eskubidea. Gurean, hezkuntza eskubidea berma dezagun, EHUK Espainiako espetxeetan irakasteko hitzarmena lortu behar du Madrilen, preso dauden euskal herritarrok hemen eta euskaraz ikasteko eskubidea baitute.

1.1. Espainiako espetxeetan legez urratzen dute eskubide hori, preso dauden pertsonak ezin baitute EHUn ikasi 2003 urtetik hona. Espainiako Gobernuak, 1979ko Espetxeetako Lege Organiko Orokorreko 56. artikulua aldatuz, preso orori galarazi zion EHUn ikasteko eskubidea, baita EHUri irakasteko eskubidea ere, urte askotako hezkuntza ibilbidea moztuz. Lege horretan oinarritutako hitzarmena eskatzen zaio EHUri, Espainiako espetxeetan irakatsi ahal izateko; baina, aldi berean, Madrilgo Gobernuak ez du hitzarmen hori baimendu nahi izan, EHUK maiz eskatu dion arren.

Gure aburuz, nahiz eta azken erabakia Madrilen egon, hemengo erakundeek badute zer esan eta zer egin. 2004 urtean, ikasteko eskubidearen urraketa ageri-agerian zegoenean, EAEko Legebiltzarrak konpromiso bikoitza hartu zuen: batetik, ikasteko eskubidea berea eginik, gauzatzeko bidea sortzea, eta, bestetik, Euskal Herriko Unibertsitate Sistemaren Legean eskubide hori jasotzea, beharrezkotzat jotzen ziren zehaztasunak araudien bidez garatuko zirela aurreikusiz. Hamar urte hauetan, ez dute ez bata ez bestea bete. Lege horri begira, EHUK aldeko diskurtsoa garatu duen arren, eguneroko errealitatea urrun geratzen da legeak ezartzen dituen ildoetatik. 2014 urtea bukatzeaz dago eta, aurrean ere, EAEko Gobernuak zein EHUK ezer gutxi egin dute eskubide urraketa horri konponbidea emateko.

UNEDn ikastea da gure senitarte presoei eskaintzen dieten aukera bakarra, aukera hori egokia ez den arren, bertan espainieraz ikasi behar dutelako. Horrez gain, gero eta baldintza ekonomiko zorrotzagoak ezartzen dizkiete eta hainbat presok hasitako ikasketak bertan behera utzi izan dituzte edota ez dute izena eman ikasketak hasteko.



Estudiar en la UNED es la única posibilidad que se ofrece a nuestros familiares presos, a pesar de no ser una posibilidad adecuada ya que los estudios solo pueden realizarse en español. Además, en los últimos años las condiciones económicas se han agudizado y muchas personas presas se han visto obligadas a dejar los estudios o a no comenzarlos, para no gravar a sus familias con otra carga económica más.

1.2. Frantziako eta Portugaleko espetxeetan, azken ikasturte hauetan, EAEko gobernuak beka ukatu die preso dauden ikasleei. Izan ere, EAEko agintariak presoek ez dutela diru iturri propiorik onartzen dute eta preso dauden bitartean ikasketak doakoak izan beharko lituzketela, etxekook diru zama gehigarriari aurre egin ez dezagun; baina, ez dute formula egokirik topatu doakotasuna bermatzeko.

2014-15 ikasturteari begira, Beka Araudi Orokorra ezarri diete preso dauden ikasleei, dirulaguntza eskatu nahi izanez gero. Araudi Orokorrean, ikasle arruntei eskatzen dizkieten baldintza akademikoak, ekonomikoak, administratiboak ... ezarri dizkiete. Horren ondorioz, eskaerarik aurkeztu ezinik, hainbat preso beka barik geratuko da.

Gure ustez, Araudi Orokorraren ezarpena, legezkoa bada ere, ez da bidezkoa. Horren egoera desberdinak ezin dira parekatu: emaitza akademiko berdina eskatu ahal dakizkieke egunero eskoletara joateko aukera daukan ikasle bati, bitarte akademiko egokiak dituenari (Internet, alegia), tutoretza, orientazioa ... daukan ikasle bati, edota Euskal Herritik 600 kilometrotara, ziegan bakar-bakarrik ikasi behar duen preso dagoen ikasle bati, urtarrit-otsailean ikasgaiko bi-hiru liburu gehien jota jasotzen duenari, sistematikoki otsaileko deialdia galarazita duen ikasle bati? Bada, eskatu eskatzen diete. Gure ustez, Araudi Orokorrean, presoaren egoera kontuan izaten duen atal bat sortu beharko lukete, edota beste formula egoki bat.

Azken hilabete hauetan, baldintza horietan, beka-eskaeren kudeaketa bideratzen ari gara, preso bakar batzuek beka lortu ahal izateko. Baina argi dugu, deialdi orokorretik at geratu diren presoek ere dirulaguntza behar dutela. Espetxeetan, hezkuntza eskubidea doakotasunari lotuta baitago eta, oraindik aldeko emaitzarik lortu ez dugun arren, lanean segituko dugu.



EHUn ere, ikasle “arrunt” gisa hartzen dituzte preso dauden ikasleak hainbat arlotan (sarbidea, ordaindu beharreko kuotak ...), nahiz eta taldeetan lekurik bete ez, eskoletara joaten ez direlako. Baina, beste aldetik, ikasle arruntek dituzten hainbat eskubide (ikasketak aukeratzea, orientazio egokia, tutoretza edo jarraipen akademikoa ...) ukatu egiten dizkiete, arrazoi ez-akademikoak medio.

Bere zeregin zuzena izan arren, EHUk ez du preso dauden ikasleen beharrak asetzeko urrats sendorik eman arlo horietan, nahiz eta hainbat konponbide zehatz proposatu dizkiegun. Unibertsitate publikoa izanda, behar bereziak dituzten taldeei baldintza egokiak eskaini behar dizkiete preso dauden ikasleei, beste hainbat talderekin egiten duten moduan.

2. Ertainetako Ikasketak

Lanbide Heziketa Zikloak aukera egokia izaten ari dira. Ikasketak ofizialak badira ere, zelanbaiteko “lege-marko orokorra” eratu behar du Hezkuntza Administrazioak, gaur egun dauden disfuntzioak ekiditeko. Une honetan, ikastetxetan egiten den borondateko lanari esker ari dira garatzen espetxeetako ikasketak. Lanbide Heziketako Zuzendaritzak neurri zuzentzaileak aurreikusi ditu, baina gauzatzea falta zaie.

Beste aldetik, espetxeetan sortzen ari diren arazoei (euskarazko materiala sartzeko edota azterketak euskaraz egiteko, azterketak egitera joateko baimenak lortzeko ...) konponbidea topatu behar zaie. Arlo honetan ere, ardura ikastetxeen esku utzi da gehien bat, Hezkuntza Administrazioaren zeregina den arren.

Hizkuntzari begira, urratsak ematen ari gara Espainiako espetxeetan dauden presoek euskara tituluak lortzeko azterketak egiteko aukeraz gain, beste hizkuntza batzuk ikasteko aukera zabaltzeko. Gaia planteatuta dagoen arren, Hezkuntza Sailak ez du oraindik aldeko erantzunik eman.

Bukatzeko, legediak jokatzen duen garrantzia nabarmendu nahi dugu, eskubide urraketa anitzetan erakundeen ordezkariak legedia erdigunean



kokatzen baitute. Hezkuntza eskubidea urratzeari dagokionez, argia da legediaren erabilera: eskubidearen aurkako legeak sortuz, legeen gainetik pasatuz, legeak gauzatu gabe utziz ... nahiz eta, legez, eskubideen aurkako legerik ez-legezkoa izatea, legedia oinarritzko eskubideen urraketarako tresna izaten da.

Gure aldetik, legezkoa eta bidezkoa den bidea sortzen ari gara, gero eta gehiago baikara elkartasunez marraztutako bide honetan. Argi dugu helburua: ikasi nahi duen preso orori eman behar zaio kalitateko heziketa doan jasotzeko aukera, hemen eta euskaraz.



BORROKAN DAUDEN PRESOAK

6.

Gure senide eta lagunek bizi dituzten muturreko egoeren ondorioz, zenbaitetan muturrekoak diren borrokaldiak burutu behar izaten dituzte euren oinarritzko eskubideak errespetatuak izan daitezen. Muturreko borrokaldi horietako bat gose greba da. Gose greba bat burutzea beti da zaila eta gainera, presoarengan ondorio lazgarriak izan ditzake. Protesta egiteko beste modu batzuk ere badira. Hauetako batzuk, “itxierak”(presoak zeldatik ez ateratzea) edo patio blokeoak izaten dira.

Ander Mujika Andonegik 6 aste bete zituen “Mitard” edo zigor ziegan Bourg-en-Bressko espetxean urtarrilean. Anderrek bere bakartze egoera salatzeke protesta egitea erabaki zuen, Bourg-en-Bresseko espetxean urtebete baino gehiago bakarturik zeramalako. Beste euskaldun presorik ez izateaz gain, espetxe hau Euskal Herritik 900 kilometrotara dago.

Zigor ziegan egoteak presoan bizi baldintzak erabat okertzen ditu, muturrekoak bihurtzeraino, eta oinarritzko eskubideak ere urratzen dira. “Mitard”-ean dauden bitartean presoak bakartuak egoten dira, beste kiderik edo pertsonarik ikusi gabe eta, eguneko ordu gehienak ziegan ematen dituzte. Espetxe aldaketa eskatua badu ere, ez du oraindik erantzunik jaso. Bere anaia ere Frantzian preso dago, beraz espetxe politikak sufrimendua areagotzea bilatuko ez balu, biek espetxe berean egon beharko lukete familiari erraztasunak emateko.

Maite Aranalde eta Izaskun Lesaka: Poitierseko espetxeak bisita bikoitzak berreskuratu ditu bertan dauden euskal preso politikoen borrokaldia-
ren ondoren. Apirilaren hasieran asteburuetak bisita bikoitza -ordu eta erdikoa- 45 minututara murriztu zuen espetxeke zuzendaritzak. Ordutegi berriaren arabera, bisita bikoitzak asteazken eta ostegunetan egin ahal



ziren. Egoera honen aurrean, “plantoa” (erresistentzia pasiboa) burutu zuten Maite Aranalde eta Izaskun Lesaka euskal preso politikoek. Espetxeak atzera egin eta larunbatetan egin ahal izango dituzte bisita bikoitzak.

Arantza Zulueta: Puerto IIIko espetxean Arantza Zulueta-ren espetxe baldintzak punta puntakoak izan dira. Isolamenduan bakarrik ez, galeria oso batean bakar bakarrik izan dute preso bizkaitarra, inorekin kontakturik izan gabe. Bere egoera salatzeko eta espetxe-modulu arrunt batera eramanezaten borrokaldia abiatu zuten Puerto IIIko euskal preso politikoek, itxialdiak eginez.

Fleuryko MAF -emakumeen espetxea- euskal preso politikoek borrokaldia egin zuten. Beraien egoera jasangaitza da. Hori dela eta, espetxeko zenbait funtzionario eta zuzendaritzaren jarrera aldatzeko eskatuz borrokaldia abiatu zuten. Plantoa egin zuten patioan eta, horren ondorioz, zigor ziegetan sartu zituzten, zigor ziegetan. Azken aldian, eskubide murrizketa eta probokazio ezberdinak jasan dituzte espetxean eta denbora luzean jasaten ari diren egoera honen bukaera lortzeko ekin zioten borrokari. Senideek Zuzendaritzari gutun bidalketa masibo bat antolatu zuten egoera salatzeko. Besteak beste, Ekhiñe Eizagirreri gertatu zitzaiona eskubide murrizketa horren adibidea da. Tratu umilgarriak ez onartzeagatik kristalezko bisitak izatera zigortu zuten.

Zuhaitz Errastik, Asier Ezeizak eta Ekaitz Sirventek Tarascongo espetxea zuten destino moduan. Frantziako espetxe kudeaketaren utzikeria eta fede txarra direla eta, Tarasconera eramane behar zituen espetxe aldate-taren zain hilabeteak eman dituzte Marseillako espetxean, ordea. Hirurek Frantziako eki-hegoaldean Euskal herritik 750 kilometrotara dagoen espetxe hau zuten “destino” gisa (Tarascongoa hain zuzen ere) baina Marseillatik ez zituzten Tarasconera aldatzen eta haxe izan da arazoaren jatorria. Asier Ezeiza maiatzean eramane zuten Marseillara, ekainean, Zuhaitz Errasti eta, uztailan, Ekaitz Sirvent zarauztarra.

Marseillako espetxean pairatu behar dituzten baldintzak oso txarrak izan dira, bai elikadura aldetik baita bizi baldintzen aldetik ere. Marseillako espetxea ez da beraien destinoa eta horren ondorioz egonkortasunik gabeko egoera pairatzen dute. Beraien eguneroko bizitza baldintzatuta dago, bes-



teak beste, preso gazteen moduluan daudelako eta egoera honek bisitak ere baldintzatzen dizkielako.

Hau guztia dela eta, Marsellan preso dauden euskal preso politikoek hainbat borrokaldi abiatu zituzten (blokeoak egin zituzten patioan, patiotik ziegara itzultzeari uko egin ziotelako, bertan plantatu egin baitziren). Aldaketarik lortu ez zutenez, borrokaldi berria abiatu zuten eta, Tarasconera eraman bitartean zigor ziegetan egongo zirela jakinarazi zuten. Irailean eraman zituzten Tarascongo espetxera, zigor ziega horietan 50 egun baino gehiago eman eta gero.

Kepa Arkauz Paris inguruan dagoen Villepinte espetxean borrokaldi luzea abiatu zuen ekainean. Arrasateko euskal preso politikoak hilabeteak zermatzan espetxean bakarrik, beste euskal preso politikorik gabe. Ekainaren 6an Iñaki Dominguez Atxalandabaso Villepinteko espetxetik Espainiara estraditatu zutenetik ez dute beste euskal preso politikorik eraman espetxe honetara.

Arkauzek bakardade egoera bertan behera uzteko borrokaldiak abiatu ditu. Hori dela eta, “Mitard” egoeran (zigor ziegak) asteak eman ditu. Bost hilabetez borrokaldi ezberdinak burutu eta gero, Meaux espetxera eraman zuten urrian.



AZPIMARRATZEKO GERTAKARIAK

7.

Sei hilabete hauetan, espetxeetan bizi baldintzen egoera okerrera egin duen bitartean, gure senideen egoerarekin, gurearekin edo iheslari zein deportatuekin erlazioa duten ekimen eta gertakari garrantzitsuak jazo dira.

Urte hasieran 130 mila lagun adierazi zuten Bilboko kaleetan giza eskubideekiko errespetua bakearen bidean aurreratzeko ezinbesteko pausu bat dela. Urtearrilaren 11an EAJ, EH Bildu-n bat egiten duten alderdiek baita ELA eta LAB sindikatuek manifestazioa deitu zuten “Giza Eskubideak. Bakea. Konponbidea” lelopean. Urtero euskal preso politikoen eskubideen alde ospatzen zen manifestaldia Eloy Velasco epailearen aginduz debekatu egin zen eta Tantz Tanta ekimenak bertan behera uztea erabaki zuen. Deialdiarekin bat egin zuten 130.000 lagun inguru. Euskal Herriak inoiz bizi izan duen manifestaldirik handiena izan zen Bilbokoa.

Otsailaren 25ean, Euskal Herriko gatazkaren ondorioen inguruan mobilizazio dinamika eta gogoeta baten markoan, 23 eragile euskal preso eta iheslari politikoen bide orrien inguruan bildu ziren Baionan. Manifestu komuna idatzi zuten eta mobilizazio handi batera deitu. Geroztik, beste eragile eta pertsona andanak bat egin zuten dei horrekin, besteen artean kolore guztietako hautetsiek eta sindikatu guztietako ordezkariak. Hitzarmen horren ondorioz, manifestaldi historikoa ospatu zen iragan ekainaren 14an, Baionan “Giza Eskubideak. Konponbidea. Bakea” - lelopean.

Ekainaren 5ean, Uruguayn Euskal Herriko bakearen aldeko ekimen garrantzitsua ospatu zen. Bake prozesua babesteko ekitaldia izan zen eta, besteak beste, Lucía Topolansky senatari eta lehen dama, Ordezkarien Gamberako presidente Anibal Pereyra, Julio María Sanguinetti, Uruguako presidente ohia, Paul Rios, Lokarriko koordinatzailea, Harremanetarako Nazioarteko Taldeko Alberto Spektorowski eta Batzar Orokorrean dauden alderdi politi-



ko guztietako (Frente Amplio, Partido Nacional, Partido Colorado eta Partido Independenteko) ordezkariak izan ziren..

Topaketa, Euskal Herriko bakearen aldeko adierazpen instituzional baten irakurketarekin amaitu zen eta, besteak beste, jardunaldiak, Lan, Etxebizitza eta Gizarte Garapen ministroak egon ziren hura sostengatzen. Ekitaldia nazioarteko bultzada garrantzitsu bat izan zen bake prozesuan aurrerapauso berriak lortzeko eta euskal gizartea protagonistatzat izango duen eszenatoki bat errotzeko.

Bestalde, 2013ko martxoaz geroztik egindako lanaren ondoren, bake prozesua bultzatzeko Foro Sozialaren erakunde sustatzaileek saio eta jarduera berriak abiarazi dituzte azken hilabeteetan. Bakearen eta bizikidetzaren errotzea bultzatzea, bake prozesuan gizartearen protagonismoa indartzea eta orain dela urtebete aurkeztutako gomendioen edukietan sakontzea izango ziren ekimen horien helburuak. Horrela, Foro Sozialak bi saio antolatu zituen Bilbon eta Iruñean.

Iruñean Herritarren parte-hartzea bake prozesuan izan zen ardatz. Herritarren inplikazioa erraztuko duten eta bizikidetzera eraikitzeko lanean gizartearen protagonismoa indartuko duten hainbat esperientzia eta tresna ezagutzea izan zen helburua. Aldi berean, eta modu zehatzago batean, bake prozesuan Nafarroako herritarren parte-hartzearen gaiari heldu zitzaion.

Bilbon, osterar, Preso eta iheslarien itzulera prozesuaren inguruan hausnartu zen. Foroaren lan-saio hau 2013ko maiatzean aurkeztutako gomendioen ataleko baten edukietan sakontzera bideratu zen: preso eta iheslarien itzultzea. Hain zuzen ere, duela urtebete proposatutako ideiak zehazteko eztabaida zabaldu zen, modu horretan konponbide berriak definitzeko.

Eusko Legebiltzarrak, ekainaren 5ean, dispartzioa etetea eskatu zuen euskal preso politikoen sakabanaketak “giza eskubideak urratu” egiten dituelako. EAJk eta EH Bildu alderdiek neurri honen aurka bozkatu zuten (??). Alderdiek, “giza betebeharrak” dela sakabanaketarekin amaitzea, eta horrek “bakea eta bizikidetzera indartzeko” lagunduko lukeela gaineratu zuten. Onartutako testuan, legeak ez duela dispartzioarekin amaitzeko oztoporik aurreikusten nabarmendu zuten ere. “Hori da euskal presoek, euren senideek eta euskal gizartearen gehiengoak adierazitako borondatea”, gehitu zuten.

Ekainaren 15ean, Sare jaio zen. Sarek preso eta iheslarien giza eskubideen eta konponbideen aldeko herritarrak batzen ditu. Euskal jendarteak gatazka



garaia atzean utzi eta behingoz bake eszenatoki bat eraikitzeke nahia irmoki adierazi du. Baina guzti hori posible egiteko, beharrezkoa da konfrontazioaren erroei heldu eta honek eragindako ondorio guztiei heltzea. Bide hau pertsona guztien eskubideak errespetatuz eta bermatuz soilik egin daiteke. Eta horretan preso, iheslari eta deportatu zein bere inguru hurbila barnebiltzeak premiazkoa izan behar du. Sareren helburua euskal preso eta iheslari guztien etxeratzea ahalbideratuko duen sare herritar bat ehuntzea da. Eta lan horretan, euskal jendarte osoa batu nahi dugu. Elkar gaitezen, pena merezi duen helburu baten alde: Giza eskubide guztien errespetua, gatazkaren konponbidea eta bakea.

Urriaren 13an Donostiako Bakearen etxean “Egia eta Oroimena adiskidetzeko prozesuetan: nazioarteko esperientziak eta euskal kasuaren erronkak” jardunaldietan parte hartu izan genuen hainbat eragile eta nazioarteko kideekin batera.

Iraganaren tratamenduaz hitz egitearen beharrezkotasunaz aritu ziren; egi publikoaren eraikuntzaz eta bide horretan memoria aktibo baten paperaz, gogoratzeaz gain ekiten duen memoria bat, gauzak aldatzen dituen hain zuzen ere. Gertatu izan dena eta gertatzen ari dena dokumentatzeak duen garrantziaz eta egiaren norabidean sujeto sozialen bultzadaren ezinbestekotasunaz ere mintzatu ziren. Zer gertatu den eta zergatik gertatu den heldu beharreko zerbait dela norabide horretan; prozesu luzeak azken batean, baina bakeruntz ibili nahi duen jendarte batek ibili beharrekoak.

Beste herrialde batzuetako esperientziak ezagutzeko aukera izan genuen: Txileko Valech Batzordearen berri izateko eta nola berau sortzeko preso politiko ohien elkarteen bultzada ezinbestekoa izan zen; Kolombiako Emakumeen Egiaren Batzordearen berri ere eman ziguten eta emakumeak memoriaren babesle eta bultzatzaile gisa duten paperaz aritu; estatu mailako hobotik ateratzeak mintzagai izan zen eta ardura judizialen erabateko linboa. Ikuspegi juridikoa ere mahaigaineratu zen, zigor bideak dituen mugapen eta ezintasunak egi kolektibo edo historiko bat eraikitzearen bidean, euskal herritarrei aplikatzen zaien “Etsairen Zigor zuzenbideaz” ere aritu ziren. Audientzia Nazionaleko epaile bati espainiar jendartearen lehen interesa zuzenbide estatua berrezartzea dela esaten entzun genion, legeri anterroristaren bitartez kolpatua izan dena, eta nola horrek espetze tratamendu ezberdindu eta zorrotzago bat apli-



katzea ekartzen duen; senideok gertutik ezagutzen dugun zerbait, baina intergarria dena beste batzuen ahotan entzutea.

Hurrengo egunean Txileko esperientzia gertugotik ezagutzeko aukera izan genuen Elisabeth Lirearekin elkarrizketan, giza eskubideen urraketen biktimak jasotzen zituen Valech Batzordeko kidearekin, eta Euskal Herrian egiaren bidean ibiltzeko topatzen ditugun traba eta zailtasunetaz aritu ginen.

Urria bukatzeko mapan hurbilago dugun Irlandako prozesua gertugotik ezagutzeko aukera izan genuen Peace Program-eko kide diren bi preso ohien eskutik: Michael Culbert preso ohi errepublikarra eta Colin Halliday preso-ohi unionista. Irlandako bake prozesuan preso ohiek duten paper garrantzitsuaz aritu ginen. Guk, senideok bizi behar izaten dugunaren berri eman genien, eta egungo salbuespenezko espetze politikak erroto urratzen dituen eskubideetat. Gure senideek balizko bake prozesu batean sujeto aktibo izateko dituzten oztopo eta debekuetaz ere aritu ginen. Erabat ados agertu ziren egoeraren larritasunarekin eta presoek zuzendutako edozein programa, beraien adostasuna izatearen beharra azpimarratu zuten. Eurek ezer gutxi espero zuten momentuan egoerak eta prozesuak aurrera egin zuela transmititu ziguten, itxaropenerako eta lanerako atea irekia utzi nahi izan ziguten beraz. Ostiralero senideek autobusaren irteerarekin batera egiten den Bilboko kontzentrazioan parte hartu zuten bi preso phiek.

Eta nazioarteko adituen eskutik, Brian Currin-en ahotik hain zuzen ere, presoek eremurako gomendioak entzun genituen hilabeteko azken egunetan. Gomendio hauek udararen aurretik burutu ziren eta parte hartu genuen Foro Sozialetik ondorioztatzen dira. Argiak dira gomendioak, eta eskubideen errespetua baldintzen menpe egotearen ezinezkotasuna horietako bat da, senideok aspaldi diogun zerbait hain zuzen ere, baita dispertsioaren amaieraren beharra. Gure senideek agertu bezala, prozesuarekiko konpromezua eta eragindako minaren aitortza ere jasotzen zituzten honako gomendioek.

Ez hori bakarrik, urriaren 28an, Nazioarteko adituek Euskal Herriko Hegoaldean harreman bira egin ostean, Iparraldea bisitatu zuten. Bertan, Aieteko Adierazpenetik hiru urteetara, urteurrenean, ekarpen sakona egin zuten Ipar Euskal Herriko sentsibiltate politiko guztietako ordezkariak: Baionako Adierazpena —Iparraldeko PS, UMP, zentro, abertzale, Berde eta CFDTren



ordezkariak sinatu dute—. Adierazpenean, besteak beste, Frantziako Gobernuari ETArekin mintzatzeko eskatu diote; neurri zehatzak proposatu dituzte euskal preso eta iheslarien inguruan, zerumugan amnistia lege bat jarrita; eta Ipar Euskal Herrirako «esparru instituzional berezi bat» emateko eskatu diote.

Luzera begirako adierazpena dela nabarmendu dute sinatzaileek beraiek, eta bateratua izateak ematen dio pisua. Bateratze horretan badu zer ikusia aurretik egindako lanak: Aieteko Nazioarteko Konferentziaz geroztik ari dira elkarlanean alderdi politiko eta eragile sozial guztiak.

Azaroan, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak dispertsioarekin amaitzeko beste aurrerapausu bat egin zuen. Horrela, Giza Eskubideak urratzen dizkielako, dispertsioarekin amaitzeko banakako kexa judizialak jartzeko hartutako erabakia egin zuen publiko. Bide berri hau larriki gaixo dauden euskal preso politikoak, 70 urte baino gehiago dituztenak eta, espetxean 20 urte baino gehiago bete dituztenak abiatu dute.



